

## ENPRESAREN SORTZAILEAK (III)

# Nor da Glovo?

Lau atalez osatutako saileko hirugarren artikulua da hau. Bertan, aztergai da Glovoren negozio-eredua, baita bere ingurukoekin daukan harremana ere. Glovoren sortzaileek egindako adierazpenetan oinarrituta, artikulua honek haien mundu-ikuskeraren irudikatzea ahalbidetuko digu eta, horrela, Euskal Herrian, inguruko Estatuetan eta mundu osoan aurrera eraman nahi dituzten aldaketak hobeto ulertzeko gakoak ematen saiatuko gara. Beren ideologia zaila izan daiteke ulertzeko gure testuinguruan, baina Silicon Valleyn sortutako pentsaera politiko berri eta arriskutsua du.

EGILEA | **PAUL IANO**

ITZULTZAILEA | **DIEGO PALLÉS LAPUENTE**

**Z**erbait ulertu ahal izateko, bere hastapenei eta garapenari erreparatu”.

–Aristoteles, metodo zientifikoaren aitzindaria, Glovoren zuribide guztien oinarria

Glovo Sacha Michauden eta Óscar Pierrek sortu zuten 2016an. Hedabideak behin eta berriro limurtu dituzte beren hastapenaren istorio erromantikoko bera kontatuz. Dena gazte ameslari batekin hasi zen: eguneko edozein ordutan, edonori edozein gauza eramatea desiratzen zuten gaztea. Ipuin hori nahiko entzuna dugu, Glovok eredu-tzat dauzkan enpresa askok antzeko sorrera-mitoak dituzte –Applek, Googlek eta Amazonek, esaterako– eta izugarri maite dute horiek jendeari kontatzea: unibertitate ikasle kementsu batzuek haien garajeetan sartuta enpresa berri hori eta bestea sortu zituzten, baliabide gutxi baina ideia bikain bat izanik. Inolaz ere ez dute kontatuko gazte horien jatorri pribilegiatuek emandako kapital finantzario eta sozial itzelak ezinbestekoak izan zirela hastapenetan.

Jatorriaren istorio sinple horrek ezkutatatu egiten du errealitatea: Glovo Katalu-

nian sortu zuten, bai, baina AEBetan du benetako jatorria. Mundu-ikuskeraren partekatzen duten eragin handiko enpresa talde batekoa da, eragin handiko pertsonen sortua. Hori gutako askok kezka garrantzatsua joko genuke, beldurgarritzat ez esatearren.

### SORTZAILEAK

Sacha Michaud Londresen jaiotako britaniarra dugu. Enpresa teknologikoen munduan sartu eta LatinRed sortu zuen, gaztelaniazko webgunerik garrantzitsuenetarikoa garaian. Ondoren, garai hartan Uberreko zuzendari nagusietako batek, Niall Wassek, Betfair enpresan –Internet bidezko apustu-etxea– kontratatu zuen. Michauden hamarkadak eman ditu antzeko lan teknologikoetan: plataformetan oinarritzeak eskaintzen duen erantzukizun mugatua eta baliabide teknologikoak konbinatuz milioiak lortu ditu bere nagusientzat. Batzuetan, negozio xelebreetan –eguzkitako betaurreko merkeak–, besteetan, moralki eztabaidagarriak diren batzuetan –menpekotasuna sustatzen duten apustu-zerbitzuak–. Bera da Glovoren zuzendari nagusia, baina bere harreman-sareaz baliatuz, eta espe-



rientzia nahikoa du enpresaren eguneroko beharrak kudeatzeko.

Óscar Pierre Silicon Valleyko enpresariaren estereotipoa da. Konpainiako ameslari gaztea da, jende arrunta zein inbestitzaileak liluratzen dituen Glovok gizartean zein beren diru-zorroetan izango duen eragin positiboa azalduz. Bere enpresa-ikuspegia “dirua lortzeaz harago” doa. Glovori hurkotasun-itxura ematen diona da: xaloa, oztopoen aurrean ausarta, xarmagarria, gaztetasunarekin lotu ohi den segurtasunez betea.



### JATORRIA

Dirudiena baino gehiago dago, ordea, itzalpean. Beren ideiak eta helburuak azaltzen dituztenean, bi sortzaileei Silicon Valleyko hizkeraren kutsua darie, agerian jartzen da “Kaliforniako ideologia” delakoaren jarraitzaile sutsuak direla. Ideologia horren zaleek gizartea hobetuko duten proiektu komunaletan sinesten dute, betiere lider ahalguztidunen zuzendaritzapean; sutsuki egoten dira edozein aldaketaren alde, eta gatazka eta desberdintasun oren iturria ko-

**Glovok bere kontrolpeko sistema behar du, bestela ez luke funtzionatuko. Hori ez da bateragarria rider-ekin izan nahi omen duen harreman lausoarekin**



munikazio falta dela uste dute, ez klase eta talde sozialen arteko lehia dauden interes kontrajarriak.

Pertsonak elkarrekin konektatzeko asmoari soilik erreparatuz gero, enpresa horiek kalterik ez ekartzeaz gain, hobeak ere ekar ditzaketela dirudi. Gaia, ordea, hori baino sakonagoa da. Silicon Valleyko pentsamolde politikoa ikertzean honako hau aurkitu zuen Gregory Ferensteinek: bertako enpresa teknologikoen jabeen ustetan, gizarte osoko soldaten %50a gizartearen %10ak bai-



DOS POR DOS / KAULDI IRIONDO

## Michaudek esan zuen Glovok bere langile “autonomoen” baldintzengatik jasotzen dituen kritikak “sindikatu en ameskeriak” direla



no ez luke irabazi beharko; haien iriztuz, egiazko ekonomia meritokratiko bat “ez litzateke oso edo guztiz bidezkoa”. “Aukera”-berdintasunean sinesten dute, ez emaitza-berdintasunean.

Sortu nahi duten mundu horretan, garrantzitsuena ez da “jendeari merrezi duena ematea, baizik eta jendeak gizarteari egiten dion ekarpena maxi-

mizatzea”. Merkatu-efizientzia helburu desiragarria denez, ekarpen hori maximizatzeko erarik onena hau da: entitate pribatuak sortzea, inolako kontrolrik gabeko lider ezin azkarragoek zuzendua. Ondoren, entitate horiek gizarte-eraldaketa sakonak ekarriko dituzte haien proiektuen bitartez, adibidez: Facebook –“mundu guztia elkarrengana hurbiltzea”– eta Glovo –“gure erabiltzaileen aisialdia luzatzea; denbora familiarekin, lagunekin edo zaletasuntan emateko aukera eskaintzea”–. Hurbiltasun-balioen alde agertzen badira ere, beren ekintzen ondorioz mundu mailako klase kontrolatzaile berria sortu dute, oraingo honetan zuribide berri eta hobe duena.

### KONTROLA

Inbertsio-enpresa batek egindako elkarrikeria batean, honela azaldu zituen

Michaudek enpresa horrek kontratatu ohi duen banaketa-konpainia tradizionalaren eta Glovoren arteko desberdintasunak: “Pentsatzen dut zuen esku ez dauden hainbat faktoreren menpe daudela zuen behar logistikoak. Zuekin zeri-keririk ez duten bitarteko asko daude eta kontrola galtzen duzue. Glovoren kasuan, kontrakoa gertatzen da. [Glovok sortu duen] ekosistemak dena kontrolatzen du, ikusten? Begi-kolpe batean dena ikus daiteke une oro... Horrek esan nahi du ezustekoak [galerak] minimoak direla. Azken finean, eskaera une oro non dagoen ikus dezakegu”.

Glovok bere kontrolpeko sistema behar du. Bestela, ez luke funtzionatuko, bezeroei ezingo lieke kalitatezko zerbitzua bermatu. Behar hori ez da bateragarria Glovok  *rider*-ekin izan nahi omen duen harreman lausoarekin, baina negozioaren ezinbesteko baldintza da.



## GATAZKA UKATZEA

Kapitalismoaren gehiegikerietatik babesteko tresna da gobernu, liberal tradizionalen arabera. Silicon Valleyko teknologista edo teknolatren arabera, ordea, ez da benetako gatazkarik existitzen, gaizki-ulertuak baizik. Ondorioz, gobernuak gizarte-proiektu eraberritzailetan inbertitu besterik ez luke egin behar. Gizarte-gatazkaren existentzia nabarmendu edota onartu nahi duen edonork egitan bere interes berekoiak baino ez omen ditu gogoan.

*Podcast*-elkarrizketa batean, Michaudek esan zuen Glovok bere langile “autonomoen” baldintzengatik jasotzen dituen kritikak “sindikatuaren ameskeriak” direla, “haien garrantzia galtzearen beldur direlako”. Badirudi benetan uste duela sindikatuak boterea gutizia hutsagatik nahi dutela —asmo txarra, beraz— eta Glovok, aldiz, mun-

du hobe eta konektatuagoa eraikitze-ko nahi duela boterea —asmo ona—.

Ekintzaile horien ustez, Facebook moduko enpresa batek munduko arazoak konpon ditzake “mundu guztia elkarrengana hurbilduz”. Pentsaera horrek agerian uzten du zer-nolako bizitza pribilegiatuak izan dituzten horrelako ameskeria bakunetan benetan sinesten dutenek.

## GAINBEGIRATZEARI UKO EGITEA

Enpresa mota horiek gobernu inbertitzaile huts gisa ikusten dute, ez jendearen babesle; hortaz, ez dute haren inolako gainbegiratzerik onartu nahi. AEBetan, konpainia horiek nahiko eza-gunak dira legea etengabe urratzeagatik, inolako lotsarik gabe.

Twitterren, Michaudek zera adierazi zuen: “Ezin dugu teknologiaren garapena geldiarazi, baina lege berriak egin ditzakegu guztiongan eragin justu eta onuragarria izan dezaten”. Jarraian, Espainiako presidentek langile autonomoen legeei buruz esandako hitzak manipulatu zituen: “[Sanchezekin] erabat ados gaude, araudia berri behar dugu lan-harreman mota berriei lekua egiteko”. Halaber, Glovoren ustez, “gobernuak horren aldeko eztabaida publikoa susta lezake egungo fase konplexua gainditzeko”.

Funtsean, Michaud egungo legearen guztiz aurka dago. Bere jarreraren arabera, gobernuak eta Glovok elkarrekin lege berriak negoziatzen hasi beharko lukete, Glovoren interesen neurritan. Demagun denda bat lapurtu nahi dudala; ondoren, lapurreten fenomeno geldiezin dela adierazten dudala; gero, mundu guztiari ergelei bezala azaltzen diodala dendak lapurtzen ditudan mundu batean lapurrete buruzko legeak ez direla egokiak; eta, azkenik, esaten dudala gobernuak lege berriak nirekin negoziatu behar dituela, nire lapurreta legala bihurtuko dutenak, alegia.

## SUNTSIPEN SORTZAILEA ETA ALDAKETAREN ERLIJIOA

Fenomeno horren faktorerik kezkagarriena “suntsipen sortzailea” da. Silicon Valleyko goiburu ospetsuak honela laburbiltzen du kontzeptu hori: “Mugi bizkor eta apurtu gauzak”.

Sacha Michauden hitzetan: “Uste dugu Glovok arin hedatu behar duela. Benetan arin. Azkar mugitu eta hedatzen ez bagara, gureak egin du”. Alegia,

ekinez ikasten dela. Ideia hori ona da kazetaritza edo zurgintza ikasteari buruz ari garenean; ez, ordea, ekonomia-aren sektore osoak berrantolatzeari buruz ari bagara. Pentsaera horrek ez ditu kontuan hartzen egon litezkeen ezusteko ondorioak, ez eta inolako ondorioirik ere. Beharbada, Michaudek eta Pierrek benetan uste dute asmo ona izate hutsarekin mundua hobetuko dutela.

## Beren ustez, Facebook moduko enpresa batek munduko arazoak konpon ditzake, horrek agerian uzten du zer-nolako bizitza pribilegiatuak izan dituzten



Aipatutako Silicon Valleyko filosofiaren elementuek antzekotasun kezkagarria dute XX. mende hasierako italiar futuristen edo Henry Forden gisako estatubatuar enpresarien printzipioekin. Futuristek teknologia eta aldaketaren boterean sinesten zuten, eta aurrera egiteko iragane-koa hautsi egin behar zela defendatzen. Elite pribilegiatua osatzen zuten, sexista eta arrazista, eta haien iritzi artistek eta teknolatret esku-bide osoa zuten aurrerapena kosta ahala kosta sustatzeko, “abiadura eta bortxaren kultura” sortuz. Azkenean, garaiko diktadura faxisten zale amorratu bihurtu ziren.

Ideiak aldatu egiten dira denborak aurrera egin ahala eta aurrerakoia zirudien zerbait erraz bihurtu daiteke munstro atzerakoi, ez baldin bada era horizontal, demokratiko eta berdinzalean eraiki. Orain inoiz baino gehiago, sortzen ditugun enpresak eta proiektuak ideietan oinarritzen ditugu, ez produktuetan. Ideia horiek arretaz aztertu behar ditugu mundua “haustera” iritsi baino lehen.

Garai hartan nahiko argi zuten irakaspen bat berrikasi behar dugu. Edward R. Murrow AEBetako kazetariaren hitzetan: “Gure arazoaren irtenbidea ez dugu goiburu sinpleetan aurkituko; hori ondo ulertzea ezinbestekoa da gure”.